

Unibasqekin lan egiten duten ebaluatzaileak aukeratzeko protokoloa

(Unibasqeko Aholku Batzordeak 2024ko irailaren 4an onartua)

Aurkibidea

1. Sarrera eta helburuak
2. Irizpide orokorrak
3. Hautagaitzak jasotzea
4. Ebaluatzaileak aukeratu eta izendatzea
5. Ebaluatzaileen jarduera
6. Ebaluatzaileen jarraipena eta ebaluazioa

1. Sarrera eta helburuak

Agiri honek Unibasq - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren (aurrerantzean, Unibasq) ebaluazio-programetan parte hartzen duten ebaluatzaileak erakarri, aukeratu eta lanean jartzeko prozedura eta irizpideak jasotzen ditu.

Protokoloaren helburua da bermatzea, alde batetik, ebaluatzaile adituak aukeratzeko direla, arlo zientifiko eta teknologikoari eta ebaluazio akademikoari buruzko ezagutza sakona dutenak, eta bestetik, zorrotz betetzen direla araudi aplikagarria, Unibasqen Etika eta Berme Kodea, eta unibertsitate-kalitatearen ebaluazioari zein ebaluazio zientifiko eta teknikoari lotutako kalitate-jardunbiderik eta estandarrik aurreratuenak.

2. Irizpide orokorrak

Hauek dira protokolo honetan ebaluatzaileak aukeratzeko deskribatzen diren irizpide orokorren inspirazio-iturriak: *European Association for Quality Assurance in Higher Education* (ENQA) erakundeak garatutako *Standards and Guidelines for Quality Assurance in the European Higher Education Area* (ESG) izeneko estandarrak, *European Consortium for Accreditation* (ECA) erakundeak adostutako *Principles for the Selection of Experts* deritzen printzipioak eta instituzionalizatuta dauden beste jardunbide akademiko batzuk (adibidez, *peer review* edo parekoen berrikuspenari lotutako erreferentziako estandarrak). Horiek guztiak zehatz-mehatz azaltzen dira Unibasqen webgunean (www.unibasq.eus) argitaratutako ebaluazio-prozesu bakoitzari dagokion dokumentazioan. Halaber, irizpideek kontuan hartzen dituzte ebaluatzaileak aukeratzeko legerian jasotako eskakizunak, hala nola Unibasqi buruzko 13/2012 Legean, ekainaren 28koan, eta Unibasqen estatutuak onartzeko 204/2013 Dekretuan, apirilaren 16koan, zeinetan ebaluatzaileak aukeratzeko irizpideak eta eskakizunak jasotzen baitira.

Horrenbestez, honako irizpide orokor hauek hartuko dira kontuan Agentziaren ebaluazio-batzordeetako ebaluatzaile adituak aukeratzeko orduan, bai eta adituen paneletan eta ebaluazio-prozesuetan parte hartzen duten beste aholkulari aditu batzuk aukeratzeko orduan ere:

- *Ezagutza, irizpide eta zorrotasun zientifiko eta teknikoa.* Ebaluatzaileek sakon ezagutu behar dituzte bai beren eremu zientifiko eta teknologikoa, bai ebaluazioaren helburu espezifikoak. Horrez gain, ebaluazio akademikoari buruzko ezagutza, irizpidea eta zorrotasuna erakutsi behar dituzte, bai eta, dagokionean, unibertsitate-kalitatea bermatzeari buruzkoak ere.
- *Prestigio eta deontologia profesionala.* Ebaluatu beharreko arloan edo eremuan prestigio aitortua duten pertsonak izan behar dute, ibilbide akademikoan edo profesionalean zeharo

akasgabeak. Orobat, euren ekarpenek babestutako ospe sendoa izan behar dute, eta printzipio deontologiko eta etikoekin erabat konprometituta egon.

- *Independentzia.* Objektibotasunez, zorroztasunez eta independentziaz jardungo dute lanean, eta ez dagokien kolektibo edo erakundeko ordezkari gisa.
- *Genero-parekotasuna.* Emakume eta gizonen presentzia orekatua sustatuko da Agentziaren organo teknikoetako kideak aukeratzeko orduan, sexu bakoitzeko kideen presentzia gutxienez % 40koa dela bermatzeko.
- *Lurralde-jatorria.* Euskal Unibertsitate Sistemako (aurrerantzean, EUS) ebaluazio-prozesuetan parte hartzen duten ebaluatzaileek euren jarduera akademikoa edo profesionala EUSetik kanpo betetzea hobetsiko da, salbu eta EUSetik kanpoko ebaluazio-prozesuetan. Halaber, ezin izango dute lotura akademikorik izan EUSarekin, haien independentzia zalantzan egon ez dadin. Ebaluazio-batzordeen kasuan, ebaluatzaile gehienek ez dute zerikusirik izango EUSeko unibertsitateekin.
- *Nazioarteko parte-hartzea.* Ahal den neurrian, nazioarteko ebaluatzaile aditu bat enplegatuko da ebaluazio-batzordeetan eta -paneletan jarduteko. Dena den, ebaluazio-programen ezaugarriak eta programa bakoitzaren inguruko ezagutza espezifikoak lehenetsiko dira, horrelako enplegatzeak sustatzeko ahaleginen aurrean.
- *Eragile ez-akademikoen parte-hartzea.* Ahal den neurrian, kanpoko *eragile ez-akademiko* bat enplegatuko da ebaluazio-batzordeetan eta -paneletan jarduteko, betiere aukera hori ematen badute programa bakoitzaren ezaugarriak, arauak eta kalitate-estandar aplikagarriak.
- *Ikasleen parte-hartzea.* Ikasle bat egongo da, beti, bai Agentziaren batzordeetan, bai ebaluazio-paneletan; ez, ordea, ikerkuntza ebaluatzeke eta pertsonak ebaluatzeke prozesuetan, ez eta araudi aplikagarriak ezarritako mugak dauden kasuetan ere.
- *EAEko hizkuntza ofizialak ezagutzea.* Ahal den neurrian, EAEko bi hizkuntza ofizialak ezagutzen dituzten ebaluatzaileak aukeratu dira ebaluazio-batzorde eta -paneletan jarduteko.
- *Errotazioa.* Ondoz ondoko ebaluazio-prozesuetarako ebaluatzaileen esleipenak errotazio-printzipioari jarraituko dio, behar bezala justifikatutako salbuespen oso berezietan izan ezik.

3. Hautagaitzak jasotzea

Unibasqek eskura dituen bitarteko guztiak erabiliko ditu nazioko zein nazioarteko pertsonal akademiko eta profesional bikaina erakartzeko, baita lehentasunez aukeratu eta lanean jartzeko ere, betiere modu fede-emaitzaren egiaztatutako meritu akademiko eta profesionalen erreparatuta.

Ebaluatzaileak erakartzeko iturrien artean, hauek aipa daitezke: Aholku Batzordeak edo euren erreferentziako eremu zientifiko eta akademikoan prestigio aitortua eta ibilbide nabarmena dituzten beste ebaluatzaile batzuek egindako proposamenak; kalitatea ebaluatzeke nazioko eta nazioarteko agentzien artean baimendutako datu-baseen trukean oinarritutako proposamenak; I+G+Bko jarduera akademikoa ebaluatzeke nazioko eta nazioarteko agentzia-sareak; produkzio zientifikoari buruzko datu-baseak eta antzekoak; elkarte zientifikoak, sare sozialak eta kolektibo profesionalak, eta unibertsitateetara bidalitako jakinarazpenak, ebaluazio-prozesuetan parte hartu nahi duten irakasle eta ikertzaileek Agentziako Ebaluatzaileen Bankuan izena eman dezatela eskatzeko.

4. Ebaluatzaileak aukeratu eta izendatzea

Ebaluatzaileak aukeratu eta, dagokionean, izendatu eta lanean jartzeko prozesua bat etorriko da araudiarekin, bai eta, baleude, ebaluazio-protokoloekin ere. Hala, une oro beteko dira bai Unibasqen Etika eta Berme Kodea, bai unibertsitate-kalitatearen ebaluazioari eta ebaluazio zientifiko eta teknikoari lotutako jardunbiderik eta kalitate-estandarrik aurreratuenak.

Agentziaren Gobernu Kontseiluak onartutako ebaluazio-batzordeen kasuan, ebaluatzaileak aukeratu eta gero Unibasqeko Zuzendaritzak izendatuko ditu, Aholku Batzordeak proposatuta. Agentziako pertsonal teknikoak ebaluatzaile potentzialak aukeratzeko zereginetan parte har dezaten ere proposatu ahal izango du Aholku Batzordeak, betiere ezarritako aukeraketa-irizpide orokorrak zorrotz betetzen direla bermatuta. Batzordeetan parte hartzen duten ikasleen kasuan, ebaluatzaile izateko profila eta prestakuntza egokia dituztenak proposatuko zaizkio Euskadiko Unibertsitate Ikasleen Aholku Batzordeari. Agentziaren ebaluazio-batzordeetan parte hartzen duten pertsonak hiru urterako izendatuko dira, eta ezin izango dira berriro izendatu ebaluazio-programa berean, harik eta hiru urte igaro arte kargugabetu direnetik. Agentziaren webgunek argitara emango ditu batzordeen osaera eta ebaluatzaile bakoitzaren curriculum laburra, aurretik aipatutako ESGek finkatutako eskakizunei jarraikiz.

Ebaluazio-batzorde bateko kide izan gabe jarduten duten ebaluatzaileen kasuan, haiek bilatu eta identifikatzeko prozesuan kontuan hartuko da zein diren ebaluazio-helburuarekin bat datozen hautagaiak. Agentziako pertsonal teknikoa arduratuko da eginkizun horretaz, eta Agentziako Zuzendaritzak edo Aholku Batzordeak gainbegiratuko du, ebaluazioaren ezaugarriak eta/edo zereginak aintzat hartuta. Agentziako pertsonal teknikoak, Zuzendaritzak eta Aholku Batzordeak nahitaez bermatuko dute ezarritako aukeraketa-irizpide orokorrak zorrotzki betetzen direla.

Ebaluatzaileak Unibasqekin lan egitea onartzen badu, Unibasqen Etika eta Berme Kodea onartu eta sinatzeko eskatuko zaio. Izan ere, lehen harremanetatik emango zaio Kodea onartzeko beharraren berri. Hortaz, ebaluazio-batzordeetako kideek lanean hasi aurretik bidali behar dute Kodea onartu eta sinatu izanaren agiria. Agentziako Ebaluatzaileen Bankuan izena emanda ez badaude, alta eman beharko dute, edo, bestela, haiei buruz dagoen informazioa eguneratu. Behar besteko astirik ez dagoela eta behar izanez gero, Agentziaren ebaluazio-batzorde bateko kide ez diren ebaluatzaileek Kodea sinatu gabe jardun ahal izango dute, baldin eta Kodea onartzen dutela adierazten badiote Agentziako pertsonal teknikoari, Aholku Batzordeari edo Zuzendaritzari. Era berean, Agentziako Ebaluatzaileen Bankuan izena emateko izapidea ere atzeratu ahal izango da arrazoi beragatik.

5. Ebaluatzaileen jarduera

Unibasqentzat ebaluazio-prozesuak betetzen dituzten pertsona guztiek euren izenean jarduten dute, irizpide independentea erabiliz, eta ez dagokien kolektibo edo erakundeko ordezkari gisa. Ebaluazio-batzordeetan, haien jarduna kolegiatua da.

Ebaluatzaileek Unibasqen Etika eta Berme Kodearen arabera jardun beharko dute, eta, horretarako, «Etika-kodea onartzeko eta konfidentzialtasuna, inpartzialtasuna eta interes-gatazkarik ez dagoela adierazteko» eranskina sinatuko dute.

Unibasqek prestakuntza egokia emango die ebaluatzaileei, kalitate-estandarrik eta -irizpiderik zorrotzenen arabera jardun dezaten, ebaluatzaile horiek proposatu eta aukeratzeko irizpideen arabera egiaztatu behar duten gaitasunaren kalterik gabe. Ebaluatzaileei eskainiko zaien prestakuntza indibidualizatua izango da, eta bat etorriko da haien profil profesionalarekin, parte hartuko duten ebaluazio-prozesuarekin eta efizientziari eta eraginkortasunari lotutako irizpideekin. Hortaz,

ebalutzaileen profilaren eta esperientziaren araberako hainbat prestakuntza-ekintza ezarriko dira, edukirik orokorrenak zein prozesu bakoitzaren eduki espezifikoak barne hartuta. Onlineko prestakuntza lehenetsiko da, modu asinkronoan eta jarduera bete aurretik jaso beharrekoa.

6. Ebalutzaileen jarraipena eta ebaluazioa

Ebalutzaileen lanaren gaineko etengabeko hobekuntza-irizpideak aplikatzeko helburuz, jardueraren ebaluazioa egingo zaie, bai ebalutzaileei, bai horiek barne hartzen dituzten ebaluazio-batzordeei, orientazio bikoitzarekin: alde batetik, Agentziako pertsonal teknikoak ebalutzailearen jarduera formala ebaluatuko du; bestetik, parte hartu duten prozesuaren ebaluazioa egiteko eskatuko zaie ebalutzaileei, eta arreta berezia jarriko da hobetzeko iradokizunen proposamenetan, eta, azkenik, batzordearen barne-funtzionamenduaren ebaluazioa eskatuko zaie batzordeko presidenteari eta idazkariari.